

LEHENDAKARIAK KUTXABANKEKO PRESIDENTEARI HARRERA EGIN DIO

Gregorio Villalabeitiak Iñigo Urkulluri Kutxabanken eta bere akziodunen, BBK, Kutxa eta Vital Banka Fundazioen eragin ekonomikoari buruzko txostena azaldu dio

Kutxabanken eta bere akziodunen jarduera korporatiboak 825 milioi euroko eragina izan zuen euskal ekonomian

- 2017. urtearekin alderatuta %12,8ko hazkundera da, eta euskal BPGren %1,1 da
- 339 milioi euro ordaindu zituzten zerga, kotizazio eta tasetan, aurreko urtean baino %11,9 gehiago
- 4.294 euskal hornitzaile kontratatu zituzten, eta hauek 231 milioi euro jaso zituzten, %6 gehiago
- Euskadin balio ekonomikoa eta soziala sortzen duen finantza-erakunde nagusia da

2019ko ekainaren 19an. Iñigo Urkullu Lehendakariak Gregorio Villalabietia, Kutxabankeko Presidente, hartu du Lehendakaritzako egoitzan. Bileran honetan Kutxabankek eta akziodun dituen BBK, Kutxa eta Vital Banka Fundazioek sortu zuten eragin ekonomikoa aztertu dute.

Gregorio Villalabeitiak Lehendakariari azaldu dionez, Kutxabanken negozio bolumenaren %60 baino gehiago Euskadin kokatzen da, eta merkatu honetan lidergo egoera du. EAEn balio ekonomikoa eta soziala sortzen duen finantza-erakunde nagusia da, eta lehena da norbanakoak, ETEak eta erakundeak finantzatzeko, bai eta bezeroen baliabideak kudeatzen ere.

Gaur goizean egindako bileran Villalabeitiak adierazi duenez, Kutxabankek eta akziodunak diren Banku Fundazioek euskal ekonomiari egiten dioten ekarpenean haziera esanguratsua ere islatzen du eragin ekonomikoari buruzko azterketak, BPG sortzeari dagokionez nahiz administrazio publikoen diru-bilketan.

Izan ere, Taldeak lurraldeko ekonomian izan zuen eragin positiboa **% 12,8 hazi zen** aurreko urtekoaren aldean. Txostenak **825 milioi** eurotan kokatu du erakunde horien jarduerak Barne Produktu Gordinari egiten dion ekarpena, hau da, Euskadiko ekonomiaren **guztirakoaren % 1,1**.

Diru-kutxa publikoek, beren aldetik, **339 milioi** jaso zituzten tasa eta zergatan, hau da, **% 11,9ko** haziera aurreko urtekoaren aldean. Kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoan 2018an **bildutako guztirakoaren % 2,3** da. Gogora dezagun, era berean, Kutxabank Taldeari 2018an **egotzitako emaitza garbia 332,3 milioi** eurokoa izan zela, karga fiskalak ordaindu ostean.

2018an Kutxabankek eta akziodun Fundazioek **euskal enpresen lehenengo kontratugile** postuari eutsi zioten. Enpresa horien gehiengoa **Euskal enpresen lehenengo kontratugilea da** -% 90- zerbitzu-sektorekoak dira, eta zehatzago, informatika eta informazio-teknologiaren arloetakoak, errepikatzen ari den konstantea, banku-negozio ereduak azken urteotan bizi duen eraldaketa digitala dela eta. Orotara, **4.294 konpainiari** luzatu zitzaizkien eskaerak, **231 milioi** euroko balioan.

Kutxabankek eta Banku Fundazioek **737 milioi** euro baino gehiago bideratu zituzten Euskadin **hornitzaileei, langileei eta administrazio publikoei** ordaintzera. 270 milioi jasotako soldatei egokitu zitzaizkien eta, hirugarren urtez jarraian, Kutxabankek bere mozkin garbiaren % 50eko dibidendua banatu zuen bere akziodunen artean, **166 milioi euro** guztira.

CEPREDEK egindako eragin ekonomikoari buruzko azterketak argi erakusten du diharduen eremu geografiko bakoitzean Taldearen jardura ekonomikoak eta finantzarioak dakarren balio-sorrera. Sortzen diren ondasun eta zerbitzuen fluxuak eta transakzioak aztertu ditu, zenbait terminotan: ekoizpena, errenta eta enplegua sortzea eta itzulkin fiskaletan. 2018ri dagokion azterketak aparte utzi du, berriz ere, Kutxabanken enpresa-partaidetzen eragina.

Bitartekaritza finantzarioak % 10,6raino igo du Euskadiko BPGn duen pisu

Finantza-bitartekaritza lanetik eratorritako **zeharkako eraginak eta eragin induzituak** ere zehaztu ditu azterketak, bere bitartekaritza finantzariotik eratorriak, eta, zehatzago, bere kreditu-jarduerari lotuak. Kasu horretan, BPG sortzeari egindako ekarpena **7.896 milioi** euroren inguruan kokatuko litzateke, Euskadiko BPGren **% 10,6**.